

Gustavo Martín Garzo
Maitagarrien hiru ipuin
Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide
Elkar, Xaguxar bilduma
Donostia, 2005

Maitagarrien gaurkotasuna

Andersen jaio zenetik bi mende igaro diren honetan, maitagarrien ipuinak iraganaren gordailu zirela uste zuen jende gehienak, eta umeei aletzeko moduko kontu zahartzat hartzen zituen. Harik eta Gustavo Martín Garzo etorri eta, *Maitagarrien hiru ipuin* soilekin, ipuin fantastikoen generoa erabateko gaurkotasunaren argitara ekarri duen arte. Helduentzat idatzi ohi izanagatik, gaztelar idazleak umeentzat ere izan daitezkeen istorio batzuk argitaratuak ditu: *La princesa manca*, *El pequeño heredero*, *Una miga de pan...* Hala ere, *Maitagarrien hiru ipuin* honekin goia jo, eta Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala eskuratu zuen iaz.

Hiru ipuin horiek *crescendo* moduko batean antolatuta daude: lehenengoan, “Urretxindorraren hegaldia”, maitasunaren indarra norainokoa izan daitekeen erakusten da; bigarrenak, “Haur izan nahi zuen maitagarria”, maitagarrien berekoikeria du gai nagusia; hirugarrena, luzeen eta, nire ustez, onena, “Printze maitea”, printzesa eder baten eta dragoi baten amodioaren emaitza den printze zorigaiztokoaren historia hunkigarria da.

Martín Garzok, ipuin tradizionalakiko lotura ezartzen asmatzearekin batera, oso egunekoak diren iruzkinak eta azalpenak tartekatzen jakin du, hartara ipuinekiko distantzia hartuz ikuspuntu kritiko eta ironikoaren bitartez. Hala, maitagarriei buruz, hauxe diosku: “Ez da egia maitagarriak ez direnik. Zaila da ikustea; horixe gertatzen da. Eta, egia esatea nahi baduzue, ia hobe da horrela, zeren haurrak zoriontsuak ez direnean agertzen baitira maitagarriak. Horregatik dira tristeak maitagarrien ipuin guztiak; horrek, ordea, ez du esan nahi atsegin ez dugunik horiek entzutea. Ipuin hau ere tristea da. Hain da tristea..., zalantzan egon naiz konta ala ez konta.”

Grimm, Perrault, Andersen eta Wilde lotzen dituen katearen azken maila dugu Martín Garzo ipuingile hau, fantasiaren magia bikaintasunez birsortzen jakin duen aldetik.

Itzulpena egiteko, berriz, ezin itzultzaile egokiagorik aurkitu: Juan Kruz Igerabide, tradizioaren unibertsoa ederki ezagutu eta itzultzaile eta egokitzaile gisa zenbat balio duen sobera erakutsia baitu. Biziki gomendagarria.

Manu Lopez Gaseni

